

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Enpresa batek aurrera egiteko behar beharrezkoak ditu bezeroak, bezerorik gabe ez litzateke enpresa bat aurrera eramateko inongo aukerarik egongo. Gure enpresa, gehienbat, kirolariei zuzenduta dago, kirolari guztiei, berdin du daukagun adina, maila edo praktikatzen duguna kirol mota; azken finean kirolak batzen baikaitu.

Publiko zabal bati begiratuz, jendearen beharrak hornitzea edo asetzea izango litzateke gure helburu nagusia, bezeroari ahalik eta zerbitzu onena emanaz. Lazkaon eta inguruetan dauden kirolariei edo eroso ibili nahi duen jendeari zuzenduta dago gure arropa marka eta batez ere denda, kiroletarako arropa salduko baitugu.

Gure marka propioa ezagutaraztea eta batik bat saltzea da gure helburu nagusia. Produktua, erabiltzailearen beharretara ahalik eta gehien egokitzea izango litzateke gure enpresaren lehentasun handiena. Hau da, gama edo maila desberdinetako arropa edukiko genuke, ahalik eta taila abaniko handienarekin, beharren eta noski, prezioaren arabera, bezeroak bere beharretara gehien edo hobeen egokitzen den materiala erosi dezan. Marka honetako arropa, beste guztiez gain, irekiko dugun dendan edo erosoagoa edo eskuragarriagoa izango den webgunean salduko dugu.